

# HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

## IDATZIZKO AZTERKETA

### [ A eredua ]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **2h 30 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira.</li> <li>• Hiru irakurgai dira eta guztira 34 item.</li> <li>• Lehenengo ariketan item bakoitzak 0,4 puntu balio du; bigarren eta hirugarren ariketetan 0,8 puntu.</li> <li>• Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</li> <li>• Testuen luzera guztira: 1.700 hitz gehienez.</li> </ul>	50-60 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</li> </ul>	90 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

## 1. ariketa

**Hutsuneak bete.** Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

### OLATUEN INDARRA HOBETO IRAGARTZEKO

Bizkaiko Golkoan buien bitartez jasotako erregistro historikoak erabili dituzte EHU Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaileek itsasoaren indarra zenbatekoa izango den aurreikusi ahal izateko. Interneten pilatzen den informazioa ikertzeko erabili ohi den algoritmo bat erabili dute datu horiek guztiak aztertu eta **1** atera ahal izateko. Emaizak *Ocean Engineering* aldizkarian plazaratu dituzte, eta **2** izango direla espero dute itsasoaren energia baliatuz **3** lortzeko bidean.

Itsasoan sortzen den energia baliatzea aspaldiko ametsa da. Hori **4** duen teknologia, ordea, garatzear dago oraindik ere, zenbait muga tekniko **5** behar baitira. Traba horietako bat olatuen berezko izaera da, ezinezkoa baita itsasoari aginduak ematea. Eguzkiari edo haizeari eman ezin zaien modura. Izan ere, **6** da energia berriztagarrien muga komun handienetako bat. Batzuetan, indar handia bideratzen dute elektrizitate-sarera, baina, beste batzuetan, energia-jarioa **7** egiten da. Horregatik da hain garrantzitsua olatuek izango duten indarra ahal den neurrian aurreikustea, elektrizitate-sarearen **8** egokitzeko. «Olatuen indarra aurreikusita, energia mota horrek izan dezakeen muga hori desagertu egiten da», azaldu du Bilboko Ingeniaritza Eskolako irakasle Gabriel Ibarrak.

Ikerketa burutu duen EOLO ikerkuntza-taldearen koordinatzailea da Ibarra; fluido geofisikoak **9** du helburu EHUko lan-talde horrek. «*Big Data* ikertzeko erabili ohi den *random forest* izeneko algoritmoaz baliatu gara, eta lehen aldiz aplikatu dugu itsasoaren energiaren arloan», azpimarratu du Ibarrak. «Datu asko daudenean, zentzu edo joera nagusi batzuk ateratzeko, behar-beharrezkoa da horrelako algoritmoen erabilera», azaldu du.

Itsas energiaren **10** oraindik ere lehen faseetan dagoela ohartarazi du adituak, baita olatuen indarra ustiatzeko teknologien alorra ere. «Oraitxe bertan, prototipo asko egiten ari dira. Seguruenik, hemendik 25 edo 30 urtera prototipo horietatik lauzpabost **11** dira, baina oraindik ere ez dakigu zeintzuk izango diren».

**12** azaldu da Ibarra horrelako ustiaketa batek izan lezakeen ingurumen-inpaktuari dagokionez. «Prototipoak direnez, oraindik **13** txikiak dira. Eskozian, lehen azterketa batzuk egin dira makina handiagoeekin, eta inpaktua nahiko txikia da. Oro har, oso alternatiba garbia da, besteak beste, ez dagoelako CO<sub>2</sub> **14**». Prototipo horietako batzuk Euskal Herrian frogatutakoak dira EEE Euskal Energiaren Erakundeak Armintzako (Bizkaia) kostaldean garatuko duen itsasoaren energia ustiatzeko BIMEP eremuan. **15**, Euskal Herrian instalazio esperimental txiki bat baino ez dago, Mutrikun (Gipuzkoa), elektrizitate-sarean txertatuta dagoena.

Ikertzaileek garatutako eredu horrek bestelako **16** izan ditzake meteorologiaren eta klimatologiaren alorrean ere, eta horretan ari dira lanean. «Azken mendean olatuen energiak izan duen **17** ikertzen ari gara; datuak oraindik argitaratzear dagoen beste lan batean plazaratuko ditugu. Olatuen altuera, energia eta frekuentzia ikertu ditugu, eta datuak oso **18** dira, parametro horietan itzelezko gorakada izan baita».

<[www.berria.eus](http://www.berria.eus)>, 2015eko irailaren 6a. Egokitua.

### 1. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

1. a) hausnarketak  
 b) eraginak  
 c) ondorioak  
 d) aurrerapenak

2. a) atalburu  
 b) lagungarri  
 c) leungarri  
 d) aburu

3. a) isuria  
 b) iturburua  
 c) higadura  
 d) argindarra

4. a) baldintzatuko  
 b) ahalbidetuko  
 c) zailduko  
 d) zehaztuko

5. a) gainditu  
 b) leundu  
 c) baliogabetu  
 d) zenbatu

6. a) gordintasuna  
 b) sakontasuna  
 c) isolamendua  
 d) aldizkakotasuna

7. a) eten  
 b) kendu  
 c) galdu  
 d) desagertu

8. a) baliabideetara  
 b) matxuretara  
 c) beharretara  
 d) tamainara

9. a) irakastea  
 b) azaltzea  
 c) itsastea  
 d) zuzentzea

10. a) garapena  
 b) bilaketa  
 c) gorakada  
 d) argiztapena

11. a) antzutuko  
 b) islatuko  
 c) nagusituko  
 d) agortuko

12. a) Suminduta  
 b) Adeitsu  
 c) Etsita  
 d) Baikor

13. a) etekin  
 b) gailu  
 c) amets  
 d) zirriborro

14. a) hondakinik  
 b) galerarik  
 c) isurketarik  
 d) ihesbiderik

15. a) Oraingo  
 b) Behinik behin  
 c) Hortaz  
 d) Gutxienez

16. a) ondorioak  
 b) mozkinak  
 c) aplikazioak  
 d) ezaugarriak

17. a) eskarmentua  
 b) gainbehera  
 c) emankizuna  
 d) bilakaera

18. a) aurreratuak  
 b) adierazleak  
 c) susmagarriak  
 d) esanguratsuak

## 2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

**Aukeratu erantzuna.** Bakarra da zuzena.

## INFEKZIOEN GLOBALIZAZIOA

Azken urteotan, sarri entzun ditugu zenbait infekzioen izen bereziak; entzun dugu, halaber, mehatxua direla infekzio horiek, hala nola hegazti-gripea, Ebola birusa, SARS edo MERS koronabirusak, eta abar. Baina, zergatik dira mehatxu XXI. mende honetan? «Azaleratzen ari diren infekzioak» deritzegu gaitz horiei, mikroorganismo berriak direlako, edo lehendik ezagunak zirenak lekuz aldatu eta arazo bihurtu direlako. Gaixotasun infekziosoak dira mundu osoko heriotzen % 20ren eragile; ehuneko horretatik heren bat gaixotasun birikoek eragiten dute. Beste animalia batzuetatik etorri ohi dira gizakiak infektatzen dituzten patogeno gehienak (patogeno zoonotikoak). Hona zer zioen Estatu Batuetako Osasun Institutuak 1992an: «... gaixotasun infekziosoen testuinguruan, munduan ez dago guztiz isolatutako lekuri eta inor ez dago gaitz horietatik erabat babestuta».

Gaur egun, garraibide berriak direla medio, nahiko denbora laburrean egin daitezke bidaia luzeak. Sarritan, infekzio-eragilearen inkubazio-epa baino laburragoak izan ohi dira egonaldiak; hori dela eta, gaixotasunaren sintomak, batzuetan, bueltan etxean gaudela antzematen dira. Ezohiko pneumoniaren eragile berri den SARS koronabirusaren lehenengo kasuak, esate baterako, Txinako hegoaldean detektatu ziren, eta handik Europara eta Amerikara hedatu, bidaiariek garraiatuta. Une hartan, bidaiariei emandako informazioak eta abisuak eragina izan zuten infekzioaren hedapen-kontrollean. Ikusten denez, lurralde jakin bateko gaixotasun infekzioso bat gainerako lurralde guztientzako mehatxua da, mikroorganismoek ez baitituzte muga geografikoak aintzat hartzen.

Bidaiez aparte, beste faktore batzuek ere lagundu ohi diete azaleratzen ari diren infekzioei; besteak beste, aldaketa klimatologikoen eta demografikoen. Klima-aldaketaren eraginez, hainbat leku koloniza ditzakete era guztietako eltxoek, eta, hartara, garraiatzen dituzten mikroorganismoak hedatu. Horren adibide argia dugu West Nile birusa, hasieran Ugandako West Nile barrutian bakarrik antzeman zitekeena eta gaur egun munduko hainbat lurraldetan aurki daitekeena (Estatu Batuetan, Frantzia, Grezia, Alemanian,...). Culex generoko eltxo batek transmititzen du birus hori. Bere ziklo basatian hegaztiak infektatzen ditu eltxo horrek, baina gizakia zein zaldia ere infekta ditzake. Azken urteotan ikusi denez, Culex espezie desberdinak izan daitezke bektore; bestalde, transmisio-denbora luzatu denez, errazago hedatzen da latitude eta altitude desberdinetara. Era berean, aldaketak izan ditu birusak, eta igo egin da hegaztietan haren patogenotasuna, eta hegazti gehiago hilarazten ditu. Laburbilduz, poliki-poliki, moldatuz joan da birusa.

Bestalde, nabarmen ari da handitzen, bai biztanleria, bai kontsumorako animalien populazioa, eta animalien eta gizakien arteko kontaktu handiagoa dakar horrek. Era berean, gizakiek eta animaliek ingurumen partekatu batera migratzeak bien arteko harreman estuagoa dakar eta, ondorioz, animalien patogenoek muga naturalak zeharkatu eta gizakiak infektatzea (azken 25 urteotako izurriteen % 65 zoonosiak izan dira). Hegazti-gripe larriek (H5N1, H5N8, H7N9...) oilasko-aziendak kutsatzean sortu dituzte arazoak, infektaturiko oilaskoetatik gizakietara zuzenean transmititu direlako birus berriak, gaixotasun larriak eraginez gizakiari. Zorionez, arnasbidetik hedatzen diren birusok ez dute gaitasun handirik, oraingoz, gizakitik gizakira transmititzeko; hori dela eta, oilasko infektatuak suntsituz kontrolatu izan dira infekzioak. Baina birus horiek gizakien artean hedatzeko ahalmena lortuko balute, arazoa oso larria bihurtuko litzateke, doministiku bakar bat eginda milioika birus kanporatzen direlako. Askotariko pandemiak sortuko lirateke berehala munduan.

Batzuetan, nazio barruko edo nazioarteko gatazkak ere izan daitezke infekzio-iturri. Gaur egun, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) baditu zenbait plan gaixotasun batzuk ezabatzeko; poliomielitisa eta elgorria, besteak beste. Baina azken urteotan ikusi denez, gaixotasunok berriro ari dira hedatzen lurralde batzuetan (Afganistan, Nigeria...), gatazka armatuak direla eta, gobernuek edo talde militarrek ez dutelako uzten umeak txertatzen. Horrenbestez, ume gutxi batzuek gaitzotako bat harrapatzen dutenean, kontrolik gabe geratzen da gaixotasuna. Gaixotasun infekziosoen agerraldiek osasun publikoaren baliabide-eskasia adierazten dute; ikusi besterik ez dago, adibidez, nola gertatu den ebolaren krisia. Egia da baliabide-eskasia hori agerian jartzean konponbideak bila daitezkeela eta, akatsetatik ikasi ondoren, hobetu egin daitezkeela, baina argi dago mundu globalizatu honetan azaleratzen ari diren infekzioak kontrolatzeko ezinbestekoa dela nazioarteko lankidetzak. Nazio bakoitzak ezin du bere kasa jardun; mundu-mailako zenbait erakunde (OME, adibidez) infekzioen arazoez arduratzen dira eta aholkuak kaleratzen dituzte infekzio-agerraldiak izaten direnean.

Baina dena ez da iluna; zorionez, badugu mikroorganismo horien kontrol mugatua ahalik eta arinen egiteko teknologia berria. Baliabide berri horiei esker, azaleratzen ari diren mikroorganismoen identifikazioa egin daiteke. Horrela detektatu izan dira mikroorganismo berriak (SARS edo MERS koronabirusak, esate baterako) edo anduiaren –zeparen– aldakortasuna (hegazti-gripe desberdinak, giza immunoeskasiaren birusaren aldaerak...). Era berean, diagnostiko-teknikak asko hobetu dira azken urteotan, eta, agerraldi bat dagoenean, azkar jakiten dira emaitzak, denbora errealeko polimerasaren erreakzio kateatua erabiliz. Ebola birusak eragindako gaixotasunean erabili da teknika kuantitatibo hori.

Bestalde, txerto eta botika berriak ere ari dira egiten beste ikuspegi batzuetatik: txertoei dagokienez, teknologia errekonbinantea eta kaltegarriak ez diren birusak erabiltzen dira; botika berriak egiteko, berriz, eremu zabaleko farmakoak prestatzen dira (esate baterako, hainbat birus mota suntsitzeko gai direnak). Botika horietako batzuek birusen entzima espezifikoak suntsitzen dituzte; beste batzuek, berriz, RNA-molekulak. Beraz, nahiz eta azaleratzen ari diren infekzio horiek mehatxu bat izan gizakiaren biziraupenerako, teknologia zientifikoak lagundu egin digu prest egoten eta erantzuna ahalik eta azkarren ematen. Argi dago, dena dela, beti erne egon behar dugula.

**BASARAS, Miren:** <[www.elhuyar.eus](http://www.elhuyar.eus)>, 2015eko martxoaren 13a. Egokitua.

## 2. ariketa. Aukeratu erantzuna

### 19. Zer dio egileak azaleratzen ari diren infekzioez?

- a) Izen berriak dituzten arren, lehen ere mehatxu izan zirela.
- b) Berriak eta ezezagunak direla, baina ez direla arazo.
- c) Mehatxu direla berriak direlako edo tokiz aldatu direlako.

### 20. Zer esaten du Basarasek gaixotasun birikoei buruz?

- a) Heriotza kopuru altua eragin arren, gutxi datozela animalietatik.
- b) Heriotza dezente eragiten dituztela eta ez dagoela isolatzerik.
- c) Gaixotasun infekzioso guztien % 20 direla.

### 21. Zer dio testuak bidaien inguruan?

- a) Bidaiariei informazioa emanez gero, ez dela gaixotasunik zabaltzen.
- b) Haien bidez gaixotasunak mundu osora zabaltzen direla.
- c) Arazoa sortzen dela inkubazio-epea baino luzeagoak direnean.

### 22. Zer esaten du egileak West Nile birusaren gainean?

- a) Aldatu eta zabaldu egin dela, eta hilgarriagoa dela.
- b) Ugandako hegaztiak hiltzetik mundu osoko edozein ugaztun hiltzera pasatu dela.
- c) Klima-aldaketagatik, orain eremu horretako eltxo guztiek kutsatzen dutela.

### 23. Basarasen arabera, zergatik sortu dira hainbeste zoonosi?

- a) Harreman estuagoa dugulako jateko ditugun animaliekin.
- b) Gugandik hurbil dauden oilasko-haziendak handitu eta ugaldtu egin direlako.
- c) Biztanleko inoiz baino animalia gehiago jaten dugulako.

### 24. Zertarako dira Osasunaren Mundu Erakundearen plan batzuk?

- a) Nazioen arteko gatazkak ekiditen laguntzeko.
- b) Gatazka armatuak dituzten herrietan lehendik ustez ezabatutako gaitzak ez zabaltzeko.
- c) Gobernuak konbentzitzeko herritarrek gaixotasun berrien aurka txertoa har dezaten.

### 25. Basareren ustez, zein dira alde onak?

- a) Egindako aurrerakuntzei esker, gaixotasun guztiak ezabatuko ditugula laster.
- b) Birusak azkar zabaltzen ari direla, baina gero eta kalte txikiagoa eragiten dutela.
- c) Teknologia, baliabide eta teknika berriak ditugula gaixotasunen kontra.

### 26. Zein da egileak ateratzen duen ondorioa?

- a) Aurrerapenek lagundu arren, adi egon behar dugula infekzioen kontrako borrokan.
- b) Teknologia lagundu egin digula gaixotasun infekziosoak betiko ezabatzeko.
- c) Teknologiai esker, gizakion biziraupena bermatuta dagoela.

## 3. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu testu zatia dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

## JOHN MICHELL, IZAR ILUNAK

Mundua pisatzeko makina bat. Hura izan zen John Michellek, Thornhilleko erretoreak, sortu zuen azkena. Eta, seguru asko, baita inoiz sortu zuen gauzarik burutsuena ere. **27** Dena dela, makina hori baino askoz gehiago ere egin zuen Michellek.

Garaikide batek bere egunkarian idatzitakoaren arabera, «gizon txiki bat» zen, «larruazal beltzaranekoa eta gizona». Ez da haren erretraturik ezagutzen. 1724an jaio zen Eakring-en (Nottinghamshire, Ingalaterra). Cambridgeko Queen's Collegen egin zituen ikasketak, eta ondoren bertan aritu zen irakasle, hainbat urtez. Hamaika titulu pilatu zituen urte haietan, hainbat arlotakoak: aritmetika, geometria, filosofia, geologia, teologia, grekoa, hebreera...

**28** Lan horretan gailu horiek egiteko metodo bat emateaz gain, magnetismoari buruzko beste hainbat behaketa zehatz ere eman zituen; besteak beste, «alderantzizko karratuaren legea» ezarri zuen. Urte batzuk geroago, Lisboako 1755eko lurrikararen ondoren idatzitako beste lan batean, proposatu zuen lurrikarak lurtean zehar hedatzen ziren uhinak zirela, eta lurteko estratuetako hausturekin (failak) zerikusia zutela. Lisboako lurrikararen epizentroa eta fokua kalkulatzeko gai izan zen. Eta tsunamiak itsaspeko lurrikarek eragiten dituztela ere iradoki zuen. Lan harengatik, Royal Societyko kide egin zuten 1760an. Han ezagutu zuen Henry Cavendish. **29** Ziurrenik, izaera zaileko Cavendish jenoaren lagun izateko gai izan zen pertsona bakarretakoa ere izan zen Michell. Erasmus Darwin eta Joseph Priestly ere lagunak izan zituen, eta inoiz haien llogiaren Elkarteko afarietan izan zen. Benjamin Franklinak berak gonbidatu zuen lunatikoen elkartera. Erasmus Darwinek honela idatzi zuen bere *Phytologian* (1800), Michell hil ostean: «jakinduria zehatz eta unibertsaleko gizona, haren laguntasuna luzaroan izan dut, eta haren galera luzaroan sentituko dut».

1764an Cambridge utzi eta ezkondu egin zen; eta hurrengo urtean emaztea hil zitzaion. Thornhilleko erretore sartu zen, eta bizitza nahiko bakartia eraman zuen ordutik aurrera. **30**

Metodo estatistikoak astronomiara aplikatzen lehena izan zen. Izarren banaketa aztertu zuen eta ikusi zuen ausazko lerrokatzeengatik espero zitekeen baino izar-pare gehiago zeudela. Izar bikoitzen lehen pista eman zuen. Oso baliagarria izan zitzaion argibide hori William Herschelli, bere izar bikoitzei buruzko lanean. Harekin ere trukatu zituen gutun batzuk. Herschellek eta Michellek, biek beren teleskopioak egiten zituzten, eta horixe zen gutunen gaietako bat. Herschell beranduago hasi zen, baina Michell baino trebeagoa izan zen teleskopio gintzan. Michellek berak 1781ean idatzi zuenez, «aukera gehiago dago nik neuretzat baliagarria izan litekeen zerbait ikasteko harengandik, hark nigandik ezer ikasteko baino».

Izarren masa kalkulatzeko metodo bat garatzen ere saiatu zen, eta horretan ari zela, zulo beltzen ideia sortu zuen. Newtonek esan bezala, argia partikulaz osatua zegoela sinesten zuen Michellek. Hala, Michellek arrazoitu zuen izar batek partikula horiek igortzean, izarraren beraren grabitateak partikula horien abiadura txikituko lukeela, eta horrek izarrak igortzen duen argian aldaketa behagarri bat eragingo lukeela. Eta efektu hori zenbatekoa izan zitekeen galdetu zion bere buruari. Michellek ondorioztatu zuen ikusi ezin diren izarrak egon litezkeela zeruan. Eta «izar ilun» deitu zien. **31** Detektagarriak izango ziren baldin eta inguruan biraka beste izar argitsu bat bazuten (horixe da gaur egun zulo beltzak detektatzeko moduetako bat).

**32** Izarren masa kalkulatzeko metodoak ere ez zuen balio, eta beraz, ez zuen izarrak pisatzea lortu. Izarrak ez, baina mundua bai, pisatu zuen bere makinak. Michell hil zenean, bere lagun Cavendishen eskuetan gelditu zen makina hura. **33** Hark burutu zuen Michellek pentsatutako esperimientua, eta mundua pisatu zuen. Cavendishek oso argi utzi zuen beti Michellek lorpen hartan zuen partea, baina, hala ere, nahiko itzalean gelditu zen hori. Hori, eta Michellen lan gehienak. **34** Ez zituen bere ideiak eta jakintza kanpora igortzen. Michell bera izar ilun bat izan zen.

ETXEBESTE ADURIZ, Egoitz. [www.zientzia.eus](http://www.zientzia.eus), 2014ko azaroa. Egokitua.

### 3. ariketa. Txertatu testu zatia

- A. 1750ean, Cambridgen, «Iman artifizialei buruzko tratatua» idatzi zuen.
- B. Haatik, zientzia ez zuen alde batera utzi; alderantziz, inoiz baino lan gehiago egin zuen Thornhillen.
- C. Ez zuen, baina, mundua pisatzerik izan, makinarekin esperimientuak egiteko aukera izan baino lehen hil baitzen.
- D. Izan ere, bereziki Thornhillera joan zenetik, Michellek ezer gutxi egiten zuen bere lanak eta aurkikuntzak ezagutarazteko.
- E. Izar ilunei buruzko Michellen arrazoiketa, nahiz eta zuzena ez izan, bikaina zen garaiko jakintza kontuan hartuta.
- F. Izan ere –gutun haietan zioena egia bazen, behintzat–, berak egindako mikroskopioen bidez, ezagutu ere egiten ez ziren gauzak ikusten ari zen.
- G. Eta, seguru asko, ez zen izango Cavendish baino hoberik makina hura maneiatzeko.
- H. Oso lagun egin ziren, bizitza osoan zehar trukatu zituzten gutunek erakusten dutenez.
- I. Izar ilunak detektatzeko modu bat ere bururatu zitzaion.

#### ■ Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	27	28	29	30	31	32	33	34
Testu zatiak								

Soberakoa	
-----------	--

Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.

### Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
  - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
  - Ideiak garbi adierazi dituzun.
  - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.**  
**EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

### 1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.  
**Gutxienez 180 hitz** idatzi behar dituzu.

**GAIA:** Zure sailak, zerbitzua hobetze aldera, plataforma informatikoa aldatuko du. Plataformaren erabileran trebatzeko, langile guztiok astebeteko ikastaroa egin behar duzue. Lantokitik kanpo izango da. Langileon ustez, lantokian bertan ere baduzue ikastaroa egiteko proposa izan daitekeen aretoa.

Idatzi gutun bat saileko arduradunari plataforma berriaren garrantzia adierazteko, lantokitik kanpora irten beharrak dituen eragozpenak azaltzeko eta ikastaroa egiteko zer areto erabil dezakezuen esateko.



### 2. ariketa: Iritzi-artikulua idatzi herriko aldizkarirako

- **Egoera kontuan hartu** eta gaiari buruz daukazun iritzia azaldu behar duzu. Ez egin helbururik gabeko idazlanik: iritzia eman eta arrazoitu egin behar duzu, herriko aldizkarirako baita.
- **Gutxienez 180 hitz** idatzi behar dituzu.
- Laguntza gisa, gaiaren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait ideia.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu. Iritziak azaldu egin behar dituzu, daukazun ideiak garatu eta lotu. Hortaz, lagungarri gisa ematen zaizkizun informazioko esaldiak ezin dituzu besterik gabe kopiatu.

**EGOERA:** Duela gutxi enpresa multinazional batean hasi da lanean emaztea. Ardura handiko lana du, baina lan horren truke ez du gizonezko lankideek besteko soldata jasotzen, nahiz eta lan bera egin.

Soldaten arteko desberdintasun horrek gogoeta eragin dizu eta herriko aldizkarian iritzia idaztea erabaki duzu.

#### GAIA:

#### LAN BERA, SOLDATA BERA

Europako Batzordeak kaleratu berri dituen datuen arabera, emakumeek, batez beste, gizonek baino % 16,4 gutxiago irabazten dute lan bera eginda.



Arrazoi ugari daude soldaten arteko desberdintasuna azaltzeko, esaterako, balio gutxiago ematea emakumeei lotutako trebetasun eta gaitasunei.

Emakumeen eta gizonen arteko soldaten aldea pixka bat murriztu da, azken urteotako krisiak gizonen soldatak jaitsarazi dituelako.

- Zein da emakumeek duten lekua lan-merkatuan? Eta izan beharko luketena?
- Nola uler daiteke XXI. mendean soldaten arteko diskriminazioa?
- Zer neurri proposatuko zenuke soldata-berdintasuna lortzeko?
- Zer ekarriko luke soldaten arteko berdintasunak?

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

## ERANTZUN ZUZENAK

- **1. ariketa:** hutsuneak bete.
- **Irakurgaia:** «Olatuen indarra hobeto iragartzeko»

1.	C	2.	B	3.	D
4.	B	5.	A	6.	D
7.	A	8.	C	9.	B
10.	A	11.	C	12.	D
13.	B	14.	C	15.	A
16.	C	17.	D	18.	D

- **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «Infekzioen globalizazioa»

19.	C	20.	B	21.	B
22.	A	23.	A	24.	B
25.	C	26.	A		

- **3. ariketa:** sartu testu zatia dagokion hutsunean.
- **Irakurgaia:** «John Michell, izar ilunak»

Hutsuneak	27.	28.	29.	30.	31.	32.	33.	34.
Testu zatia	C	A	H	B	I	E	G	D

Soberakoa	F
-----------	---